



# HERRITARRAK HERRIARI BURUZ ERABAKITZEN

Alegian herritarrek egin berri duten bileran Tontokale eta Larraitz auzoa batzen dituen zubia berritzea erabaki dute 6

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2009-01-31

VII. URTEA 1.617. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Eskolako haur eta gurasoak kalejiran irten ziren lehen egunean. A. IMAZ

## LEITZAREN LEKUKOA HARTUTA, ARESO ERE MOZORROTU DA

**ARESO** Atzo hasi ziren Inauteriak Areson, Zirkoak herriko kaleak alaitu zituelarik; gaur, ere festa giroa nagusi izango da herrian 4

## Irati Mujika amezketarra aske utzi dute, bermepean

**POLITIKA** 10.000 euro ordaindu du sendiak; beste bost euskal preso ere askatu dituzte 5

## Udal Kiroldegiaren kudeaketa kontratatzeko aukera

**ANOETA** Lizitazio deialdia egitea onartu du Udalak; kontratuaren iraupena lau urterako da 7

## Lehen sektorean ere nabari al dugu krisia?

**EKONOMIA** EHNE eta ENBA sindikatuek egungo egoera zertan den azaldu dute 2-3

**TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

Telefona: 943651063  
Webgunea: www.samaniego-tolosa.com  
Posta elektronikoa: 012244aa@hezkuntza.net

• HAUR HEZKUNTZA (2 URTEK HASITA)  
• LEHEN HEZKUNTZA

07:30etik aurrera  
Haur taldea

**ORXE**  
B.H.I. I.E.S.  
TOLOSA

Telefona: 943651387  
Webgunea: www.orixe.net  
Posta elektronikoa: 012980aa@hezkuntza.net

• DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA  
• ZEREGINEN IKASKUNTZAKO GELA  
• LAN HASTAPEN EGOKITUA  
• BATXILERGOAK

**D EREdua - KALITATEZKO IRAKASKUNTZA**  
**MATRIKULA EPEA: OTSAILAREN 2tik 13ra**

**VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**

**JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA**

**Fleming**

**Fleming Ikastetxea.**  
Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)  
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)  
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691413  
012277aa@hezkuntza.net

Matrikulazio epea:  
Otsailaren 2tik 13ra

**Ernioeba B.H.I.**  
Villabona

**Ernioeba Ikastetxea.**  
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza  
Arratzainen (12-16 urte)  
Tel.-faxes: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net

# LEHEN SEKTOREAN, ZER?

**Ekonomia** » EHNE eta ENBA sindikatuko ordezkariak azaldu dute zer nolako eragina duen krisiak nekazaritza eta abeltzantzan.

## ESTI EZEIZA

Krisia denon ahotan dagoen hitza da azken denboraldian. Honek sektore guztietan du eragina, baina nekazaritza eta abeltzantza ere. Batzuen iritziz, aspalditik bizi dute egoera hau baserritarrek, baina beste batzuen ustez egoera ez da horren latza.

Baserría euskal herritarren bizi eredu izan da urte askotan, baina eskualdean ere. Baina gauzak aldatuz doaz eta sektore hau ikusteko bi eredu eskaintzen dizkigute EHNE eta ENBA sindikatuek. Lehendabizikoak ia 300 kide ditu Tolosaldean eta bigarrenak 100. Hauetako ordezkariekin mintzatu da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria. Alde batetik, Eneritz Otamendirekin, (EHNEren Barne Antolaketako ardura-duna) eta bestetik, Mikel Arteagarekin (ENBAren Gipuzkoako lehendakaria).

## Sindikatuak egiten duen lana deskribatu

**EHNE:** Baserritarren interesak defendatzea da gure lana, eta beraien aldarrikapenak behar den lekura eramatea. Baita, baserriarrak antolatuta izatea ere. Autonomoak gara baina menpekotasun handiak dauzkagu. Administrazioak daukan politikak toki batera eraman gaitu eta aldarrikatzen jarraitzeko beharra daukagu.

**ENBA:** Ez gara langileen sindikatu bat bezalakoak, gu ekoizleak baikara. Azken batean, baserriarren elkarte garena esango nuke. Gainontzeko sindikatuen eginkizunak eta gureak ez dira berdinak. Gure lana da baserriarrek dituzten gabeziak eta komunean falta dituzten zerbitzuak eskatzea. Informatzeaz arduratzen gara. Bestalde, agente ekonomiko bezala, administrazioarekin mahaien esertzen gara, markatzen dituen politikak eztabaidatzeko.

## Zein arazo dituzte?

**EHNE:** Administrazioa ekoizle handiak babestera joan da, eta mota honetako ekoizpena sustatzera. Diru laguntzak emateko garaian eredu bat bultzatu du. Horregatik dei egiten diegu baserriarrei salmenta zuzenera jo dezan, administrazioak daraman politika horretatik ihes egiteko eta gure etorkizuna bermatzeko. Zaila da, baina badaude egitasmoak: kalean esnea saltzen duten baserriarrak daude, makinak gaia ere pil-pilean dago... Prezioek lurra jo dute haragiaren kasuan, ekoizpen kostuak altuagoak baitira salmenta prezioak baino.

**EHNE: «Ekoizpena dibertsifikatzea bultzatzen dugu; gauza bakoitzetik pixka bat»**

**ENBA: «Ekoizpen bakarrera jotzea da bidea; gainerantzean zaila da exijentziak betetzea»**

Euskal Herrian kontsumitzen dugunaren ia %40a bakarrik ekoizten dugu. Dena den, arazo larriena da ekoiztiko hau ere ezin dela saldu. Kanpotik haragi merke asko sartzen da, eta honek ondorio latzak ekartzen dizkigu.

Haragiaren beste arazoetako bat da, bultzatu den kontsumo mota. Izan ere, egun, txuleta, xerra eta lau gauza gehiago jaten dira, oro har. Ondorioz, txekorraren zati ugari irtenbiderik gabe gertatzen dira.

**ENBA:** Europa maila, gizartearen kontraesan handi bat dago. Gero eta kalitate hobegoko produktuak ekoiztea nahi dute, eta kontrol ugari jartzen dituzte hau baieztatzeko. Produktua bera ez ezik, inguruak ere aztertzen da. Ondorioz, gero eta kalitate handiagoa dute produktuek eta exijentzia gehiago. Baina aldi berean, herritar-



ENBA nekazaritza sindikatuko Gipuzko ordezkari da Mikel Arteaga asteasuarra. ESTI EZEIZA

rrak, beste alde batera doaz. Diruz estu dabilzanean, produktu merkeak erostera jotzen dute. Hauek ere frogak gauditu dituzte, eta salmentarako baimenak badituzte, baina ez dituzte gure exijentzia guztiak bete behar. Kontraesan bat dago hor.

Gure exijentziak bete behar dituen produktu batek gero ezin du globalizazio mundu honetan, gainontzekoekin lehiatu.

## Lehen sektoreari ere etorri al zaio krisia?

**EHNE:** Egund, krisia denon ahotan badago ere, azpimarratu beharra dago, sektore honek 20 urtetik gora daramatzala krisian. Aktibak urtetik urtera gutxitu dira. Orain alde batzuetan nabaritzen dugu, merkatuaren menpe ere bai bai kaude zentzu batean, baina ez da krisi egoera honen ondorio bakarrik. Egoera txarra da aspalditik.

**ENBA:** Nekazaritza berez da aktibitate nahiko zaila eta gogorra. Horrek ez du esan nahi beti krisian dagoenik. Merkatuak ez du nahiko errenta ematen. Baina ez nuke esango krisian dagoenik. Jarraipenik ez du, eta hori bai da krisia.

Memento honetan, aspaldian bizi izan dugun egoerarik latzena pairatzen ari gara. Azpisektore batzuk iaz oso egoera onean zeuden, esaterako esnearena. Baina hau erabat aldatu da, eta bost hilabete inguruko goraldi horren ostean, erori egin gara. Dena den, espero dugu bide hiru hilabetetan buelta emango diogula.

## Lehen sektorearen krisia nondik dator?

**EHNE:** Administrazioetik eta toki ezberdinetatik bultzatu den politikak sektorea portu batera eraman du, eta hau ez da baserriarrek behar harko genukeena. Monoekoiz-

pena bultzatu dute, nolabaiteko intentsifikazioa ere bai, eta baserriarrek salmenta zuzena egin ahal izateko bideak moztu dituzte. Horren ondorioz, mendeko sektore bilkatu da hau eta alternatiba gutxi dituen bere eskuetan. Sortu den ekoizpen mota honek menpekotasun handia sortu dio baserriarri.

Lehengaiak kanpotik ekarri beharra dauka kasu askotan baserriarrek eta gainera, salmenta ez dago bere esku.

**ENBA:** Eskaera gutxitu egin da. Bestalde, nazioarte mailan guk baino merkeago saltzen hasi dira batzuk, eta horrek gure produktuen eskaria jaitsi egin du.

Hemen ere, krisiaren oihartzuna zabaldu denez, jendeak erosketak murriztu egin ditu. Produktu merkeagoak erosten hasi da. Honek produktuen arteko borroka areagotzea ekarri du, eta salneurriak jaitsiz hasi dira denak. Globa-

## H Hilberria

### KARMEN MENDIZABAL BARANDIARAN



Beti egon zara gure artean, jarraituko duzu gure bihotzean.

Sendiak

BEASAIN  
2009ko  
urtarrilaren 31

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**EHNE** sindikatuko Barne Antolaketako arduraduna da Eneritz Otamendi orendaindarra. ESTI EZEIZA

lizazioaren ondorioz aukera handiagoa da, eta prezioen murrizketak, gurea bezalako baserri bat ito egiten du.

**Lehen sektorearen krisi kronikoa gainditzeko zer egin daiteke?**

**EHNE:** Irakurketa bi aldeetatik egin behar da. Batetik, baserriarrei esaten diegu, beraien haragia zuzenean saltzen hasteko, eta bestetik, kontsumitzaileei, harategira joaten direnean, produktuaren jatorria kontuan hartzeko. Zer nola-ko ekonomia bultzatzen ari diren hausnartu beharko lukete. Horregatik, ahalik eta gertukoena erostea gomendatzen diet, merkatu lokala garatu dadin. Horiek baitira eredu sostengagarriak.

**EHNE: «Sektore honek 20 urtetik gora daramatza krisian; aktiboak gutxituz doaz»**

**ENBA: «Berez, aktibitate zaila eta gogorra da; horrek ez du esan nahi beti krisian dagoenik»**

Honekin lotuta, baserriarrei esaten diegu, ahalik eta eredu autonomoena izateko. Hau da, kanpotik ahalik eta genero gutxien erosteko, eta saltzeko garaian, ziklo txikiak egiten saiatzeko, bitartekariak ekidinez.

**ENBA:** Honetarako onena da, gure produktuak ahalik eta gertuen saltzea. Erraza dela ematen du, oro har, gutxi ekoizten baitugu, baina praktikan oso zaila da. Hemen kontsumitzen ditugun produktuen artean, bertakoak baino askoz ere gehiago dira kanpokoak.

Gu aurten saiatu gara apostu berri bat egiten baserriarekin. Bertako baserrietako sagarrak, txuletak, gazta, arrautzak... erabiltzea proposatu diegu. Baina ez dute nahi, garestiagoa baita beraiatzat. Dena den, mota horretako apostu batzuk egin beharko genituzke: katering enpresetan, eskolako jan-gelatan... Administrazioak esku bat emango beharko liekete hauei, bertako produktuak erabili ditzaten.

Bakarrik baserri bat aurrera eramatea oso zaila da, oso lotua baita, eta aisirako denborarik ia ez du uzten. Horregatik, elkarteak sortzea proposatzen dut. Bi edo hiru nekazari nahiz abeltzain elkartzuz, ekoizpen berezitu bat eginaz. Horrela denen artean banatuko luketela.

**Baserritik bizi al daiteke?**

**EHNE:** Bai, noski baietz, baina ez da erraza. Aberastu nahi baduzu ez joan baserrira, baina bizitzeko adina ateratzen da.

**ENBA:** Bai, ez da erraza baina bizi daiteke.

**Nekazaritza eta abeltzantza, bien egoera al da ezkorra?**

**EHNE:** Aabeltzantza oso gaizki dago, esne sektorea nahiz haragiarena. Esnearen kasuan, gehienek zentraleri saltzen diete, eta menpekotasun handia daukate. Ondorioz, buru asko izatera behartu gaituzte, eta zentralarekiko menpekotasuna handituz doa. Hori dela eta, baserri asko itxi dira.

**ENBA:** Antzeko egoera da baina. Memento batean, azpisektore batzuk hobeto egon daitezke bestek baino, baina oro har berdintsua da. Nekazaritzaren kasuan, batzuk lan gehiago egiten dute inguruan,

gertuko denda eta merkatuetara salduz. Hauek lan pertsonala egiten dute etxetik, beraien produktuak saltzen nahiz eskaintzen, eta batzuei hobeto ateratzen zaie besteie baino.

**Baserri txikia Vs. ekoizle handiak**

**EHNE:** Guk bultzatzen duguna ekoizpena dibertsifikatzea da. Gauza bakoitzetik pixka bat izateko. Gure kideen artean badaude ikuilu handiak dituztenak, baina hau administrazioak bultzatu duenaren ondorioa da.

Monoekoizpen batera joaten bazara menpekotasuna handiagoa da. Ekoizpen mota batera lotuta bazaude, elurte edo gaitz batek dena kaltetu dezake.

**ENBA:** Ekonomistek diote bi edo hiru azpisektoretan lan egitea hobe dela, bat kaltetuz gero, bestea daukazulako. Baina horrenbeste gauza exijitzen direnean zaildu egiten du ekoizpen ezberdinetan lan egitea. Horregatik, bakarrean bakarrean berezitzea da bidea.

Oso ongi ikusten dut alor ezberdinetan aritzearena. Hau da, baratz bat izatea, abelburu batzuk eta basoak esaterako, baina egun zaila ikusten dut.

Baserriar handiak zaila badiu hortik bizitzea, are okerrago txikiak. Baserriar txikiak erabat lotuta dago, eta ez du behar bezain beste-ko errentarik ateratzen. Horregatik, hori al da nahi duguna? Ez harritkatzeagatik gutxierekin geratu? Dena den, etorkizunean, baserriar askorentzat hau, osagarri izango da.

**Gazteak baserritik bizi nahi al dute?**

**EHNE:** Gazte asko daude baserri-

tik bizi nahi dutenak, baina egoera oso zaila da. Hutsetik hastea ia ezinezkoa da. Espekulazioa dela eta nekazal lurrek salneurri izugarriak hartu dituzte.

Gure krisietako bat errelebo falta da. Baserri asko itxi dira ondorengoek jarraitu nahi ez dutelako. Baina orain, badago beste joera bat ere, eta hiritar asko ari dira baserri bizitzera hurbiltzen. Baina arazoa da, hutsetik hastea zaila dela, eta administrazioak ez du horretan laguntzen.

**EHNE: «Bitartekariak murriztea eta salmenta zuzena bultzatzea da egoera hobetzeko bidea»**

**ENBA: «Baserriarren elkarteak sortzea da bidea; bakarrarentzat lotua baita lan hau»**

**ENBA:** Gazte gutxi daude baserritik bizi nahi dutenak. Gauza asko egin ditugu hauek erakartzeko, baina motz geratzen gara. Batzuk sartzen dira, baina oso gutxi dira.

**Nola sartu daiteke bat lehendabiziko sektorean?**

**EHNE:** Baserria da eskolarik onena. Nahi duenak pixkanaka hasi behar du, orain arte dauden baserrietan lan eginez, eta benetan gustatzen zaion baieztatuz. Izan ere, hutsetik hasi nahi baduzu, administrazioak inbertsio handiak egitera behartzen zaitu. Hala, askori gertatu zaie, gero ezin izan diela buelta eman honi.

**ENBA:** Egun eskolak badaude, nekazaritza mundua ezagutu nahi duenarentzat. Gaztenek bezalako ekimenak hor daude. Luzatutako datuen arabera, Euskal Herrian urtero 100 lagun hasten dira. Baina horietatik, benetan, baserri baten-ganako apostua egiten dutenak gutxi dira.

**Diru laguntzekiko menpekotasuna dute baserriarrek**

**EHNE:** Diru laguntzak gauza berriak erostera eta inbertsioak egitera bideratuta daude. Baina memento honetan, Foru Aldundiak onartu du ekintza plana, eta lehen sektoreari zuzendutako laguntzak murriztu egin ditu. Lehen ere, diru

gutxi zen, eta orain, gutxiago. Espainiako Gobernuak dio krisi garaietan dirua sektore emankorretan inbertitu behar dela, baina nekazaritza ez dute emankortzat jotzen, eta hori oso larria da.

Badago diru laguntzik gabe lan egiten duenik, baina oso gutxi dira, horretara eraman baikaituzte. Gainera, nabarmentzekoa da, diru laguntzak baserriarrentzat badira ere, gero prezioak jaitsi ahal izateko bideratuta daudela hauek. Hau da, alde batetik laguntza hori ematen digute, baina bestetik, salneurriak jaistera ia behartzen gaituzte, egoera berdinean utziz. Azken batean, gu ez gara laguntza horien onuradunak.

**ENBA:** Merkatuak ez du ordaintzen gure politikak exijitzen duen bezala ekoizteko adina. Horregatik, kontrolak gainditu ahal izateko, eta kostu hauek ordaintzeko merkatuak ez duenez ematen, diru laguntzak ematen ditu Europak. Baina sei urte hauetan aldaketa ugari eman dira, eta diru laguntzak murriztuz doan, exijentziak handitzen ari diren bitartean.

**Baserriak eta baserriarrek galtzen badira, zertan nabaritu dugu?**

**EHNE:** Kalitatea da gakoa. Kanpotik datozen produktuek ez daki-gu nola dauden ekoizita eta osasun bermeak ezin ditugu ziurtatu. Osasunaz hitz egiten ari gara. Bestalde, kanpotik datorren genero hau ez da jasagarria, garraiobide ugari behar baitira, eta kutsadura areagotzen du.

Bestalde, gure ingurunea, dagoen bezala zainduta, baserriarrei esker dago. Lau hirigunez osatutako Euskal Herria ez badugu nahi, lehendabiziko sektorea bultzatu behar dugu.

**ENBA:** Produktuen aldetik, behar bada askok ez dute nabaritu edo faltan botako. Baina denborarekin, paisaia nabarmenduko dugu. Baserriak beteta daude, baina abere-rik ez dago, eta inork ez ditu inguruko lurrag garbitzen.

Paisaia eta lurralde aldetik, hemendik denbora gutxira izugarriko falta somatuko dugu, baina beranduegi izango da. Inor ez dagoen garaian galdetuko dugu ea non dauden baserriarrek. Azken batean, horiek baitira inguruak, mendira joateko bideak... zaintzen dituztenak.

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Inauterietako lehen egunean Zirkoak alaitu ditu herriko kaleak

**Areso** » Eskolako hurrek prestatutako Zirkoarekin hasi eta Lagun Arteak antolatutako afariarekin amaitu zen lehen eguna.

## ASIER IMAZ

Eskolako haur eta gurasoen kalejirarekin hasi ziren atzo Inauterietako Areson. Gaur eta bihar moztorturik jeisteko aitzakiarik ez da faltako.

## Aresoko Zirkoa kaleetan

Hego Afrikako elefanteak, tigreak, lehoiak eta tximuak; Euskal Herriko Txin Txin mago ospetsua, bakeroak, pailazoak eta akrobatikak; Munduko gizonik indartsuena eta traktorerik azkarrena... Areson elkartu ziren atzokoan Inauterietako hasiera emateko gogoz. Kalejira egin ostean, Txokolatada eduki zuten denek. Gauean berriz, afari batekin ospatu zuten lehen eguna.

## » EGITARAUA

### Urtarrilak 31, gaur

■ **Goizean.** Eskea baserrietan Koldok lagunduta.

■ **17:00.** Mozorroak kalera aterako dira.

■ **18:00.** Dantzaldia Koldorekin herriko plazan.

■ **18:00.** Guraso Elkarteak arratsaldekoa eskainiko dute herriko plazan.

■ **21:00.** Herri afaria ospatuko da Elkarteak Lagun Arteak antolatuta.

■ **Ondoren.** Dantzaldia Koldorekin.

### Otsailak 1, bihar

■ **Goizean.** Eskea egingo da herriko etxeetan, herriko trikitilarietako lagunduta.

■ **17:00.** Gorringo taldearen antzerki ikusgarria eskolako gimnasioan.

■ **Ondoren.** Herriko trikitilarien emanaldia trinketeetan.



Aresoko Zirkoak alaitu zituen kaleak atzokoan, herriko Inauterietako lehen egunean. ASIER IMAZ

# Ikurrina eskuan dutela Beorlegira otsailaren 8an

**Ibarra** » Behe Nafarroan mendi irteera «erraza» egingo dute datorren igandean animatzen diren mendizaleek.

## A. IMAZ

Haitzetan Raju mendi taldeak eta Bai Eukal Herriari ekimenak elkarlanean jarraitzen dute, *Geurea Ikurrina* ekimena Euskal Herriko zazpi lurraldeetan zehar zabalduz.

Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdi «konkistatu» dituzte. Otsailaren 8an Behe Nafarroara joango dira egun pasa eta mendi ibilalditxo bat

egitera. Ibartarraren esanetan, irteera hau berezia izango da; «azken irteeran egin genituen lagun berriak eta lagun zaharrak Behe Nafarroan elkartuko gara. Horregatik, herritarrek eta ingurukoek otsailaren 8ko mendi irteeran parte hartzea nahiko genuke, erantzun berezi bat emanaz».

## 08:00etan Ibarroko plazan

Ibaratik mendizaleak 08:00etan irteerako dira otsailaren 8an, igandean. Donibane Garazin autoak utzi eta Beorlegira joango dira, ondoren haserako puntura itzultzeko. Ibilbidea «oso erraza» dela azaldu dute, 3-4 ordutakoa.



Azken irteera Larrun mendira egin zuten ibartarrek, nahiz eta eguraldia etsai izan. A. IMAZ

## Irurako Ikastola

- (2-9 URTE)
- Lehen Hezkuntza

'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'

San Migel, 5 • 20271 IRURUA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

- 2 urteko gela. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

MATRIKULA EPEA:  
Otsailaren 2tik 13ra

Matrikulazio Ordutegia:  
© 943 65 46 13-65 29 32  
9:00-13:00 - 15:00-18:00  
anoeta@ikastola.net

Mahala

BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

# Irati Mujika presoa etxera itzuli da bi hilabete eta erdi kartzelan egin ondoren

**Amezketak** » 10.000 euroko bermea ordaindu behar izan du sendiak; berarekin batera, beste 5 euskal preso askatu dituzte.

## NEREA URBIZU

Irati Mujika Amezketako preso gaztea atzo gauean zehar aske utzi zuten. Horretarako, Espainiako epailek jarritako hamar mila euroko bermea ordaindu behar izan zuten sendiak.

Atzo goizean Mujikaren ama eta hiru lagun Madrilerako joan ziren bermea ordaintzera eta gaztea Amezketara ekartzera. Gauean utzi zuten aske, eta herritarrek Amezketara heltzean egin zioten ongietorria.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) jakitera eman zuten atzo, Irati Mujika preso amezketarra aske utziko zutela. Joan den azaroaren 10ean atxilotu zuten eta Soto del Realen (Madril) bi hilabete eta erdi egin behar izan ditu. Berarekin batera beste bost euskal preso gazte aske utzi dituzte, bermepean hauek ere: Iñigo Gulina,



Irati Mujika 2007ko artxiboko irudian. A.C.

Javier Oses, Mikel Beuntza, Mikel Marin eta Ohian Ataun iruindarrak, hain zuzen ere.

## Segikoa izatea leporatuta

Segi gazte erakundearekin lotuz eta kale borrokako ekintzak leporatuz sei gazte hauek (Mujika barne) atxilotu zituzten Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak, Nafarroan (Irati Mujika Iruñean).

Amezketarrak, atxilotuta egon zen bitartean, torturak jasan zituela salatu zuten.

Espainiako epailek hamar mila euroko bermea jarri zion sendiari Irati Mujika kaleratzeko. Sendiak atzo goizean zehar ordaindu zuten hari ezarritako bermea. Ondoren, preso askatzea itxaron behar izan

zuten, gaua iritsi zen arte, eta goizaldera arte ez ziren jaioterrira iritsi.

## Hainbat elkarretaratze

Hainbat elkarretaratze egin zituzten Irati Mujika inkomunikatuta egon zen bitartean eta mozio bat ere onartu zuten Amezketako udaletxeko bilkuran, bere egoera salatzeko. Izan ere, bost egun izan zuten inkomunikatuta eta bitarte horretan torturak jasan zituela salatu zuten gazteak, bere abokatuak argitu zuten bezala, «psikologikoki, emakume bezala eta fisikoki».

Irati Mujika Fernando Grande-Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aurrean deklaratzera deitu zuten, atxilotu eta handik bost-sei egunera. Segikoa izatea eta kale erasoak antolatzea leporatu zion epaileak espetxeratzeko. Azaroaren 14an Soto del Realen sartu zuten, guztira hiru hilabete eta erdi egin dituelarik.

## Iritziak

■ info

## Interneten jendeak albisteari emandako erantzunak:

■ **Ander.** «Bazen garaia behingoz berri onak entzuteko! Aupa Irati ongi etorri!».

■ **Mikel.** «Aupa Irati! berri ona, baina pena da, zuk ez zenuelako hau dena pasatu behar izan».

## 'Basoa' erakusketak izan duen harrerarekin «oso gustura»

### ERREDAKZIOA

1.800 bisitari inguru izan dira Tolosako Aranburu jauregian kokaturiko *Basoa* erakusketan, irekita egon den 24 egunetan; batez beste, beraz, 75 bisitari izan dira eguneko. Tolosako Ingurumen Zentrotik diotenez, datuak «oso adierazgarriak dira»: % 56k talde antolatuei zuzendutako ikastorduetan bisitatu zuten erakusketak eta gainontzeko % 44ak publiko orokorrari zuzendutako ordutegian».

Eguneko batez besteko bisitarien datua «oso positiboa» izan da: 42 lagun izan dira talde antolatuetan eta 33 publiko orokorrari zegoen ordutegian. Tolosako Ingurumen Zentroak eta Tolosako Udaleko Agenda 21, Partaidetza eta Ingurumen Departamentuak oso balorazio ona egin dute. Baina, horiez gain, bisitariak eman dioten puntuazioa ere oso altua izan da, 9 puntukoa izan baita, batez beste.

Ingurumen Zentroak urtero ingurumenaren gaiarekin zerikusia duen erakusketak bat antolatzeko konpromisioarekin jarraitzen duela azaldu du, eta eskertu nahi izan ditu *Basoa* erakusketak bisitatu duten herritar guztiak.



# SARIDUNAK

## ① bi lagunentzako afaria

Asteasuko Sarasola sagardotegian  
Irene Lasa Urkola (Alegia)




TOLARE  
SAGARDOTEGIA

## ② 1936ko gerrako oroitzapenak tolosaldean eta leitzaldean

liburuaren  
— 5 ale —

Agustin Amiano (Altzo)  
Juanma Ordozgoiti (Irura)  
Aitzol Udal Euskaltegia (Tolosa)  
Inazio Agirre (Tolosa)  
Josune Agirrezabala (Tolosa)



## ③

Hitzalean  
liburua

— 5 ale —



Xanti Urizar (Tolosa)  
Jose Manuel Arzallus (Tolosa)  
Alazne Dorronsoro (Bidania-Goiatz)  
Maider Muñagorri (Tolosa)  
Oinintza Garaikoetxea (Tolosa)

## ④ lau lagunentzako afaria

Tolosako  
Denak tabernan  
Olatz Lizarra (Irura)



DENAK  
taberna

Saridunaren harpidedun txartela aurkeztu beharra dago ziurtagiri moduan. Eskaintza berriak hileko azken astearte, asteazken eta ostegunetan argitaratuko dira.

harpidedunen  
TXOKA hitza



Astearteko bilerara 20 lagun joan ziren eta bertan herritarrek erabakiak hartu zituzten. PATXI RENOBALDES

## Tontokale eta Larraitz auzoa batzen dituen zubia itxuraldatzea erabaki dute

**Alegia** » Zubiaz gain beste hainbat gai jorratu zituzten eta horien artean, adibidez, plazan bankuak jartzearen erabakia hartu zuten.

### ERREDAKZIOA

Joan den asteartean iluntzean Alegiako udaltxean bilera bat izan zen eta bertan, Larraitz auzoa eta Tontokale batzen dituen zubiaz aritu ziren, besteak beste. 20 lagun inguruk hartu zuten parte eta herriko zubi nagusia berriitu ala ez erabakitzea zen xede nagusia. Eztabaida irekiaren bitartez bi puntu landu zituzten: batetik, zubia itxuraldatu ala dagoenean mantentzea eta bestetik, bertan aparkatzen dituzten autoek sortzen duten arazoa.

Itxuraldatzearen alde agertu ziren joan ziren herritar gehienak eta aldaketa horien artean baranda berriak jartzea adostu zuten. Gaur egungo pretilak eskaintzen duen segurtasuna hobetzeki lehentasuna ematea adostu zuten ere, horrekin batera estetika ere zainduz: aukera desberdinak aztertu eta gero, gaur egun Tontokalen dauden baranda berdinak zubian ere jartzea erabaki dute, «horrek nolabaiteko jarraikotasun bat ematen diolako». Era berean, farola berriak ere jarriko dituzte.

**Zubian, autoak joan-etorriko** Alegiako zubi nagusian oso arrunta da autoak aparkatuta ikustea eta hau «arazo izatera iritsi da, trafikoa emateko garaian proposamen hauek entzun ziren: zubiaren era-

bilerari begira, jendeak oraingo ez du ikusten oinezko bihurtzea. Momentuz autoen joan-etorria bere horretan mantentzearen aldeko agertu ziren herritarrek, eta mantentzen hasita, bi norabideak mantentzea ikusten dute egokien.

Beraz, hartutako erabakia honakoa izan da: bi aldetako espaloiak zabaldu oinezkoentzat erosotasuna eta segurtasuna ahalik eta gehien bermatzeko, eta aldi berean, beraz, autoen joan-etorriko estuago utzi.

Bi norabide mantentzea erabakita, «garbi geratzen da autoa bertan aparkatzearen arazoak beste-lako neurri batzuk hartzea eskatuko duela: izan ere, gaur egun ere bi norabide ditugu eta horietako bat guztiz oztapatuta geratzen da bertan auto ilada jartzten dutenean aparkatuta».

Honen aurrean, ohiturak aldatzeko kontzientziazio kanpaina bat egitearen behararekin ados agertu ziren bileran elkartutakoak. Udalaren esku geratuko da lanak erabakitzea. Zubiko berrikuntza lanak bukatuta, «gai horri bete-betean helduko zaio», hartu beharreko neurri guztiak hartuz.

Esan bezala, trafikoa dagokionez ez da aldaketarik aurreikusiten. Dena dela, ez da baztertzeko aurrerago beharren arabera beste-lako erabakiak hartzeko aukera: adibidez, asteburuetan ixtea eta abar. «Irizpideak aldatzekotan, orduan ere oraingoan bezala, bilera irekia egin eta adostu osten aldatuko lirateke».

### Plazan bankuak jarriko dituzte

Horrez gain, beste hainbat gai ere atera ziren astearteko bileran: esaterako, Udalaren asmoa plazan banku berriak jartzearena. «Herritarrik bat etorri zirenez aurrera egingo da ideia horrekin». Lau eserleku berri jarriko dituzte bertan.

Era berean, jakitera eman zuten azterketa bat egin dela herrian behar diren farola, zakarontzi eta eserleku berrien inguruan. Bilera-koen hitzetan, «luze gabe jarriko dira horiek guztiak».

Bilera zubiaren ingurukoak izan arren, jendeak mahai gainean jarritako beste gai batzuk ukitzeko aukera ere izan zen: ibai ondoko pasealekuaren egoera, herrian aparkatzeko dagoen arazo orokorra eta abar.

### Hurrengo bilera bat haur eskolaz

Bilera honetan «jendearen nahiak, kezka eta ideiak jasotzeko helburua bete dela esan daiteke». Udalaren esanetan eta aurrerantzean ere pisuzko gai eta proiektuen inguruan berriro eztabaida irekia bultzatzeko konpromisoa hartu du Udalak. Aurreratu daiteke hurrengo haur eskolari buruz izango dela.

## Leitzak eta Alegiak 'Zapatero plana' diru laguntzak jaso dituzte

### ERREDAKZIOA

Herenegun eta atzo, Leitzako Udalak eta Alegiako Udalak Zapatero Plana bezala ezagutzen den diru laguntzaren baiezkua jaso dute.

Leitzak haur eskola eraberritze-ko, alde zaharreko harri-zorua berrireteko, hirigintza orokorrerako, zeharbidetarako eta udal-letxea eraldatzeko. Bost proiektu hauek egingo dituzte diruarekin.

Alegiak erantzun bat jaso du: Bestin auzora joateko oinezkoentzako herri biderako, alegia.

## Laburrak

### Tolosako Inauterietako txarangen lehen bilera

**TOLOSA** » Datorren asteazkenean, otsailaren 4an, hain zuzen, Tolosako Inauterietako txarangen bilera izango da Kultur Etxean. 19:00etan hasiko da eta Jai Batordeak egin du deialdia.

### Aiton-amonon eskoletako izen-emate epea, zabalik

**IBARRA** » Aiton-amonon eskolak antolatuta dituzte Ibarra. Aitona eta amona, semea eta alaba eta biloben arteko harremanez hitz egiteko bilgunea izango da, beste gauza askoren artean. Bilerak Maria Jesus Urangak eta Ana Elosegik zuzenduko dituzte, Ibarra Kultur Etxean, hilean behin eta astelehenean. 15:45etik 17:15era izango da. 10 euro kostako da izen-ematea eta hau Udal Gizarte Zerbitzuetan eman behar da, otsailaren 13a baino lehen.

### Intxurreko eta Ibarraoan partidak gaur, kanpoin

**KIROLA** » Ibarraoan Lauburu areto futbol taldea Santurtzin ariko da gaur 16:15ean. Jubenilak Donostian ariko dira gaur ere eta 13:00etan ikastetxe alemaniarrekoen kontra jokatuko dute. Intxurreko lurreldeko mutilak Segurakoen kontra jokatuko dute gaur partida, eta kasu honetan, Alustiza zelaian, 15:30ean hasita.

### Hezkuntza proiektuaren aurkezpena, asteazkenean

**TOLOSA** » HH, LH eta DBHko matrikula epearen hasiera dela eta, datorren asteazkenean 16:00etan hezkuntza proiektuaren aurkezpena egingo dute Tolosako Hirukide Jesuitinetan, 2006. urtean jaiotako haurren gurasoentzat. Bestalde, 18:30ean Bigarren Hezkuntzaren aurkezpena egingo dute Hirukide Eskolapioetan, 1.997an jaiotakoentzat, alegia.

## Udalak izeia eman egingo du

**Alegia** » Haizeak Languarren botatako zuhaitz handia interesa duenarentzat izango da, «baldintza batzuen pean».

### N. URBIZU

Alegian aste honetan izan den hainzetearen egunean, Languarre parkean douglas izei handi bat erori zen. Zuhaitzak han jarraitzen du oraindik, eta Alegiako Udalak honenkin zerbait egitea pentsatu du, herritarren bati eskaintzea, hain zuzen ere.

Zuhaitz horrekiko interesa duenak Joxe Manuel Garaialde zinegotziarekin harremanetan jarri



Douglas izeiak 35 metro inguruko luzera dauka. PATXI RENOBALDES

beharko da datozen egunetan. Baina Udalak baldintza bat jarri du: izeia gaitik interesa duenak zuhaitza eramateaz arduratu beharko

du eta ondoren alderdi leku hori txukun utzi. Douglas izeiak 35 metro inguruko altuera dauka, eta egurra ateratzeko makina bat kilo-

# Udal kiroldegiaren osoko kudeaketa kontratatzeko lizitazio epea zabalik

**Anoeta** » Proposamenak aurkezteko azken eguna otsailaren 4a da; lau urtetarako da eta prezioa 221.288 euro urteko.

**IMANOL GARCIA**

Anoetako Udalak Abraham Olano udal kiroldegiaren osoko kudeaketa, jardunbide irekiaren bidez kontratatzeko lizitazio deialdia egitea onartu zuen. Proposamenak aurkezteko azken eguna otsailaren 4a da, datorren asteazkenean.

Periko Peñagarikano alkateak azaldu duenez, kiroldegiaren kudeaketak Udalarik «lan handia» suposatzen dio eta horregatik erabaki dute lan hori enpresa batek hartzea. Zenbait enpresek interesa azaldu dute baina oraindik ez da proposamenik aurkeztu. Beste aukera bat ere izan daiteke kiroldegiaren lanean ari direnek enpresabat sortzea eta kudeaketa bere gain hartzea.

Alkateak zehaztu duenez, egun lanean daudenak bere postuan jarraitzea aintzat hartuko da lizitazioa egiterakoan. Hain justu, Kiroldegiko arduraduna den Onintza Arregiren lana goraiatu du Peñagarikano.

## Lau urtetarako

Lizitazioaren kontratuaren iraupena lau urtekoa izango da eta beste bi urtez luzatzeko aukera izango da. Lizitazio prezioa urteko 221.288 eurokoa izango da.

Kiroldegia eraikitzeko Udalak ez zuen diru laguntzarik jaso, baina bai barruko ekipamendurako. Eraikina kostua ordaintzeko 25



Abraham Olano udal kiroldegia Ergoien auzoan dago, Ikastolaren ondoan. I. GARCIA



Kiroldegian egiten den cycling-eko klase bat. I. GARCIA

urterako mailegua eskatu zuen Udalak eta urteroa, interesak eta amortizazioa kontuan hartuta, 260.000 euro inguru ordaintzen ditu. Bestalde, kiroldegiaren kudeaketak defizita sortzen du, hau da, gastuak diru sarrerak baino handiagoak dira.

Anoeta bezalako udalerririk baten zat bazkide ugari daude, 240 inguru. Erabileraren datuei dagokionez, iaz 1.300 erabiltzaile izan ziren. Kontuan izan behar da Anoetako Ikastolak zenbait kirol ekipamentu erabiltzen duela kiroldegia eta Anoetako Gazte Asanbladak dituen bi areto futboleko taldeek ere kiroldegian izaten dituztela euren partidak.

## Laburrak

### Kultur Astea antolatzeko bilera datorren asteartean

**ANOETA** • Kultur Astea antolatu nahi dute Anoetan martxo hasieran. Horrela, egitaraua prestatzen hasteko bilera egingo dute datorren asteartean, otsailak 3. Bilera udaletxean izango da 19:00etan.

### Otaño matrikulatzeko aukera otsailaren 2tik 13ra

**ZIZURKIL** • Pedro Mari Otaño ikasketean matrikulatzeko egunak otsailaren 2tik 13ra izango dira. Bestalde, eskola ezagutzeko gurasoentzat bilera-eguna antolatu dute eta otsailaren 3an izango da. Eskolako liburutegian elkartuko dira 17:00etan.

### 'Gure sagutxo Perez hori 2' eta 'Australia' ikusgai

**VILLABONA** • Gurea aretoan bi film ikusteko aukera izango da asteburu honetan. Helduei zuzendutako *Australia* filma gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean ikus daiteke. Haurrei zuzendutako *Gure sagutxo Perez hori 2*, euskaraz izango dena, gaur eta bihar ikusi ahalko da 17:00etatik aurrera.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdi:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbol:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarain autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurrumendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# III. Kultur Astea antolatu du Jesusen Bihotza Ikastolak, Benito Mujikaren omenez

## Villabona-Zizurkil »

Ekitaldiak datorren asteleheneetik igandera izango dira; azken egunean ibilaldi neurtua egingo dute.

#### ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza Ikastolak III. Kultur Astea antolatu du eta azpimarratu nahi izan dute aurtengo Kultur Astea «persona berezi bati eskaini nahi diogula: Benito Mujikari; joandaneko abuztuan zendu zen irakasle eta lagun on izandakari». Datorren aste guztian egingo dira ekitaldiak, asteleheneetik ostiralera eta igandean.

## » EGITARAUA

### Otsailak 2, astelehena

■ **11:30.** DBHko ikasleek Euskal Kirol Jaialdia Olaederra kiroldegian.

### Otsailak 3, asteartea

■ **10:30.** Goazen filmaren proiektzioa Gurea zineman, LH 3, 4, 5 eta 6 mailako ikasleentzat.

■ **17:30-19:30.** Sukaldaritza ikastaroa gurasoentzat Ibaizert elkartean Jokin Zabalairekin.

Batez ere, ikasleei zuzendutako ekitaldiak egingo dituzte, baina gurasoei zuzendutakoak ere antolatu dituzte. Horrela, 15 guraso Jokin Zabala sukaldariarekin ariko

### Otsailak 4, asteazkena

■ **11:30.** Zentroko ikasleentzat, Gurea zinema aretoan mahai-ingurua, Bera-Bera eskubaloitaldetako jokalarik eta entrenatzailearekin.

■ **15:00-17:00.** LH6 eta DBH1-2ko ikasleek Santa Ageda bezperako erronda.

■ **17:30-19:30.** Sukaldaritza ikastaroa gurasoentzat Ibaizert elkartean Jokin Zabalairekin.

dira sukaldaritza ikastaroa egiten Zizurkilgo Ibaizert elkartean. Bestalde, haur eta gurasoei zuzendutako bai Ikastolakoak bai bertakoak ez direnak ere, ibilaldi neurtua egin-

### Otsailak 5, osteguna

■ **17:15.** Ikasleen emanaldia Gurean.

### Otsailak 6, ostirala

■ **15:30.** Patxin eta Potxin pailazok, Txerminen HH eta LH1-2 ikasleentzat.

### Otsailak 8, igandea

■ **09:30.** Ibilaldi luzearen irteera.

■ **11:00.** Ibilaldi laburraren irteera.

go dute. Bi aukera izango dira: ibilaldi luzea eta ibilaldi laburra. Partehartu nahi duenak, idazkaritzako zenbakira deitu behar du (943 69 23 21) eta bertan izena eman.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra/Leitza:** 687 410 032. ibarra/leitza@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitza/Leitza beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Tolosa.** San Blas auzoko jaiak: 12:00etan ume jolasak; 16:00etan toka lehiaketa probintziakoentzat eta 18:30etik 21:30era Disko festa.  
■ **Ibarra.** Haur Festa 0-12 urte arteko umeentzat Belabietako kiroldegian 11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:00etara. Ondoren txokolatada izango da plazan.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Palestinaren aldeko ekitaldiak: 12:30ean manifestazioa, 11:30-14:00 erakusketa Kultur Etxean, 14:00etan bazkaria Otsabin, 17:00etan kalejira Alde Zaharretik eta 18:30ean kontzertuak Otsabin.  
■ **Tolosa.** *Tolosa Kantari* 12:00etan hasita Tontokaletik. Euskaraz kantatzea atsegin duen guztie irekia dago.  
■ **Tolosa.** Azken txanpan sartu da Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ari da aurrera eramaten janari bilketa. Arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak utzi behar dira. Gaur, 11:00etatik 14:00etara haima jarriko du Sahararen aldeko elkarteak Triangulona, eta bertan utzi ahaliko dira janariak. Cus-cus eta tea ere dastatu ahaliko da.  
■ **Tolosa.** Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena eman daiten Kultur Etxean 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

### Musika

■ **Tolosa.** Euskal Kantu Liriko Berriak, Santa Klara elizan 20:00etan.

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan: 17:00etan, *Una amistad inolvidable*, 19:30ean *El intercambio* eta 22:30ean *La ola*.  
■ **Villabona.** Gurea aretoan: 17:00etan, *Gure sagutxo Perez hori 2* (euskeraz), eta 19:30ean eta 22:30ean *Australia*.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



## Bakea aldarrikatu dute ehunka ikaslek

**TOLOSA** ● Atzo, Bake Eguna izaki, Hirukide ikastetxeak ekitaldi bat burutu zuen Triangulona. Ikasleak zein irakasleak bildu ziren bertan, eta *Bakea* hitza letra erraldoiekin osatu zuten. Lehenago, letra handi horietan, bake-

aren inguruko leloak eta esaldiak itsatsi zituzten. Idatzi bat irakurri zuten, eta abesti bat ere entzun ahal izan zen. Ikasle batzuk graffiti bat egiten ere egon ziren, *bakea orain!* idatzi zutelarik. IT.

## A Agurrak

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA**  
ERDIOBEA BAILARAKO IKASTOLA  
Kalitatezko hezkuntza euskalduna eta eleanitza  
Teknologia berriak eguneroko lanean  
Goiz-Txoko eta Jangela zerbitzuak  
**ETORKIZUNA ERETEN, FAMILIEN ZERBITZURA**

### ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOAK IKAS KOMUNITATEA

**PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**  
Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL  
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

**LASKORAIN IKASTOLA**  
KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA  
ETA ELEANITZA 0-18 URTE

**AITZOL**  
UDAL EUSKALTEGIA

**Matrikula zabalik**  
**Otsailaren 2tik 13ra**

**Ordutegia:** 09:00-13:00 / 16:00-19:00  
Ostiraletan 09:00-14:00  
**Dauden taldeetan sartzeko.**

Rondilla, 34-B 3.a  
Tel. 943 651006 - 943 652343  
aitzolue@tolosakoudala.net